



Mutriko Udala

MUTRIKUKO IKASKETA GELAK

ARAUDIA

1.- Helburua:

Gazte zein helduei zuzenduriko ikasketa gela bat eskuragarri jartzea da ikasgelen helburu nagusia. Herritarren ikasteko guneen beharrei erantzuteko asmoz, bakarka ikasteko bi gela jarri dira.

2.- Kokapena eta aforoa:

- Zabil Kultur Etxeko ikasgela, Erdiko kale 28, beheko solairuan kokatua. 12 pertsonarentzako aforoa du.
- Konde kalea 18ko lokaleko ikasketa gela. 18 pertsonarentzako aforoa.

3. Guneen egokitzapena:

Bi guneetan izango dira ikasteko mahaiak, aulkiak, komunak, WIFI konexioa eta igogailua, irisgarritasun aldetik.

Kultur Etxeko ikasgelan, gainera, erreferentziazko eta kontsulta-lanerako hainbat liburu dago eskuragarri.

4. Ordutegiak:

- Zabil Kultur Etxeko ikasgela Liburutegiko ordutegiari lotuta egongo da.
- Konde kaleko ikasgela, aldiz, goizeko 6:00etatik gaueko 24:00etara egongo da zabalik, urteko 365 egunetan.

5. Adina:

16 urtetik gorako ikasleei zuzenduta daude ikasketa gelak.

6. Sarrera-kontrola:

Giltza elektronikoak erabiliko dira, eta liburutegian egin behar da eskaera, dagokion inprimakia bete eta erabiltzaileen erregistroan izena eman eta gero. Horretarako, eskabidea bete eta NAN agiriaren kopiarekin batera aurkeztu beharko da.

Esparruan sartzeko giltza PERTSONALA ETA BESTERENEZINA da, eta irregulartasunik gertatuz gero, erregistratutako erabiltzailea izango da erantzulea.

7. Kostua:

Ikasketa gelaren erabilpen zerbitzua 5€-koa da. Txartela galduz gero, liburutegiko arduradunei jakinarazi beharko zaie lehenbailehen, txartela baliogabatzeko.

Txartela eskuratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Inprimakia beteta.
- NAN fotokopia.
- 5€-ko transferentziaren ziurtagiria.

8. Betebehar orokorrak:

· Bakarka ikasteko guneak dira. Beraz, ISILTASUNA zaindu behar da beti. Mugikorrek itzali edo isiltasunen jarri behar dira. Hitz egin beharra badago, kalera atera beharko da.

· Ikasketa gelak modu egokian erabili behar dira. Erabiltzaileek Ikasketa Gelak egoera txarrean aurkituz gero, liburutegiko langileei edo udaltzainei jakinarazi beharko diete.

- Txartela pertsonala da eta ezin zaio beste pertsona bati utzi. Txartelik gabe ezin izango da ikasketa gela erabili.
- Eserlekuak ezin dira gorde eta materialak, atsedeen labur baterako ez bada, ezin dira aulkietan ezta mahaietan ere utzi.
- Ezin izango da materialik utzi geletan.
- Ezin da erre, jan edo ura ez den beste ezer edan.
- Erabiltzaileen intimitatea babestu eta errespetatzeko asmoz, ez da argazki- edo bideo-kamerarik erabiltzen utziko Zuzendaritzaren baimenik gabe.
- Ikasgelatik ateratzen den azken pertsonak argiak itzali eta lehioak itxi beharko ditu.
- Ikasketa gelan dauden gainontzeko pertsonak eta inguruko auzotarrak errespetatu behar dira.

9. Arau urratzeak:

Erabilpen araudi hau urratzeak txartel elektronikoa baliogabetzea ekarriko du zuzenean, sarrera behin behinekoz edo behin betikoz galarazita. Horretarako, udalak izango du eskumen osoa, sor litezkeen kalteei erantzuteko eskatuz.

10. Erabiltzaileen babesa:

Erabiltzaileak edozein unetan erabili ahal izango du Ikasketa Gela zerbitzurako eman dituen datuak atzitu, zuzendu, ezeztatu edo aurka egiteko eskubidea.